

# CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA

## EUSKAL NAZIONALISMOA; IRAGANA, ORAINALDIA ETA ETORKIZUNA

---

**O**hitura zentralista duen estatu baten barruan bizi diren herriealdeentzat botere politikoa lortzea bereziki zaila da beti. Estatuak beti jartzen dituen zailtasunei, askapen nazional prozesuan dauden herrialdeen barne ezberdintasunak batu behar zaizkie: pragmatismoa ala erradikalismoa, bide paketsuak ala borroka armatua, burujabetzaren maila: independentzia osoa, konfederazioa, federalismoa, autonomia posiblea... Euskal Herria aukera ezberdin hauen eredu on bat izan da.

Euskal nazionalismoaren “profeta” izan zen Sabino Arana, hain xalo eta aldi berean horren iraultzailea zen gauza

aldarrikatu zuen: “Euskadi euskaldunon aberria da”. Herri zahar hau ordurarte bizirik irauten zuen berezko erakunde zahar erberdinen babesean: nafar Erreintutik, teorikoki 1841 urterarte bizi izan zena, beste lurraldeetako foru sistemak arte, jatorrizko burujabetzaren aztarnak, dena gero eta baldintzatuago bereziki suntsikorra zen botere zentral batengatik. Bestalde eta baita garrantzitsua ere: bere aniztasunean Herri edo Euskal Nazioa eraikitzeko kontzientzia amankomun bat piztu gabe, Nafarroa, Iparralde eta Vascongadak deitutako erakundeen ibilbide ezberdinez larriagotua.

Garrantzi handia izan zuen botere politiko bat lurralde aniztasun hontatik aldarrikatzeak. Tamalgarria izan zen XIX. mende bukaerako nafar euskalzale intelektualen artean Sabino Arana bezalako aktibista politiko bat ez aurkitzea. 1841 urteko Nafarroako Erreinu hondar izaeraren ondorengo belaunaldia ziren eta lehendik existitzen zen berezko estatu baten aldarrikapenari erraz balio eman ahal izango zioten, probintzia vascongadak eta Iparralde zati bat barne, historikoki, ez soilik kulturalki, Nafar erresuma zaharrean ere partaide izan zirelako. Lehen espaniar Errepublikako buru federalista zen Serafin Olave nafarra bezalako pertsonai batere susmagarria, nafar estatu federatu bat proposatzen zuen, zeinetan

## LEHENDAKARI OHIA

Vascongadek, nafar transpirinaikoak eta Errioxak parte har zezaketen...

Beraz euskal abertzaletasunak titulu historiko garrantzitsuenaz baliatu gabe hasten zuen bere bidea, hau da, lehendik existitzen zen estatu berri baten izaera, autodeterminazio eskubide aldarrikapen, "printzipio demokratiko" eta estatu bat legezkotzat hartzen duten beste titulu batzuek mespretxatu gabe. Eta aldarrikapen horrek, nafarroako euskal kontrako indar polititikoaren nafarroako titulu historikoen monopolioa euskal abertzaletasunaren aurka ekidutuko zuen.

Gauzak horrela, euskal abertzaletasunak, Nafarroan bereziki eta Iparralden, noski, lurraldetasunari dagokionez banaketa mingarrienarekin egin zuen topo. Errepublikara garaiaren prozesu autonomikoak azpijokoa erabili zuen honi buruz. Estella-Lizarra Estatutuaren arrakastaren ondoren, nafar eskumaren azpikeriek Iruñako Gayarre Antzokian ondoren ospatutako batzarrean, Nafarroako autogobernuaren aldarrikapen ibilbide ezberdina bultzatu zuten, Araba, Bizkaia eta Gipuzkuarekiko. Oztopo konstituzional gehiago ekiditzeko, Franco ondorengo "transizioa"ren konstituzio prozesuan, batzuek, "transitoria 4<sup>a</sup>" delakoa legealdian ezartzea onartu genuen, honek, Nafarroari gainerako Hegoaldearekin autogobernua

partekatzeko aukera iraunkorra eskeintzen ziolako. Neurri hau batzuek eta besteek asko gaitzetsi zuten. Hau gabe, Nafarroa konstituzionalki Soria edo Burgos bezala geldituko zen, EA Erekin legez bateratzeko aukerarik gabe. Gaur, "transitoria" hori gogorren gaitzezten zuten abertzaletan ere, bi errealitate onartzen dituzte: Nafarroaren eta Iparralden aldarrikapen nahia beti kontuan izatearen beharra eta benetazko formula "konfederal" bat, beharrezko duten erritmoa jarraituz.

Euskal abertzaletasunak lurraldetasunarekin duen ikusputuari buruz digresio hau eginda, bati bat, lerro hauek idazten duenarentzat, beharbada, arazo sentikorrena delako.

**1978. URTEAN HERRIAK EZIN ZION AUTOGOBERNU BATI UKO EGIN (NAHIZ ETA MUGATUA IZAN), ESPARRU GUZTIETAN BERE BEHARRAK HAIN LARRIAK ZIREN ETA (KULTURA, HIZKUNTZA, EKONOMIA, GIZARTEA...) PREMIAZKO AUTOGOBERNU NEURRIAK EZINBESTEKOAK ZIREN**

Beste hausnarketa bat egin behar da pragmatismo-erradikalismo alternatibari buruz, nola ez, gure gertuko iraganean ageri dena. Momentu eta egoera bakoitzak bi jarreraren zati jakin bat behar dute.

1978. urtean Herriak ezin zion autogobernu bati uko egin (nahiz eta mugatua izan), esparru guztietan bere beharrak hain larriak ziren eta (kultura, hizkuntza, ekonomia, gizartea...) premiazko autogobernu neurriak ezinbestekoak ziren.

Estatutuaren apustua, bere mugekin, behar-beharrezkoa izan zela uste dut, Euskal Herriarentzat hondamena ekarriko zukeen diktadurara buelta ekidituz batez ere.

eta zientzia eta teknologi iraultzek gure herriaren energia eta erakargarritasun osoa eskatzen dute. Horregatik Euskal Herriak Europako Estatu izan behar du, berezko hitz eta erabakiekin.

**EUSKAL HERRIA BEZALAKO  
HERRI TXIKI BATEK EZINGO  
DU BIZIRIK IRAUN, EZTA  
ERE GIZARTE AURRERATU  
BATEN ERRONKEI AURRE  
EGIN, ESTATU PROPIO BATEN  
BALIABIEEN INDARRIK  
GABE. HORREGATIK EUSKAL  
HERRIAK EUROPAKO ESTATU  
IZAN BEHAR DU, BEREZKO  
HITZ ETA ERABAKIEKIN**

Aitzitik, iragarri genuen bezala, Estatu Espainarraren joera zentralistak laister eta gero eta biziago azaldu ziren. Estatutua premiazko “botika” izan zen, baina argi dago Euskal Herria bezalako herri txiki batek, herrialde indartsuz inguratua eta gero eta komplexuago den politika, ekonomia eta gizartea jasotzen dituen nazioarteko inguru batean, dagoenean ezingo duela bizirik iraun, ezta ere gizarte aurreratu baten erronkei aurre egin, estatu propio baten baliabieen indarririk gabe. Horregatik, herri gisa gure historiaren beste momentu erabakigarri batean gaude. Eta inoiz beste ausardia exijitzen du, Europar Batasunean estatu baten berezko indar politikoa aldarrikatzeko. Estatutu esparruak, hondamena zekarren larrialdi batetik atera gintuen. Oraingo erronka, gaurko eta etorkizuneko nazioarteko erlazio konplexuak erantzun propioa eman ahal izatea da, gizartearen aldaketa

